



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2021IPL0009

Eguna: 2021-09-28

Ordua: 19:00 – 19:35

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Iasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV

Amatasun bajarengatik eskuordetutakoak:

- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Urkiri Salaberria Gracia..... Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

Bertaratuak udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezkoko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK		ZIORDEN DEL DIA
2021eko uztailaren 23ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 23 de julio de 2021.
2021eko udal aurrekontuaren aldaketa: kreditu transferentzia	2	Modificación del presupuesto municipal del 2021: transferencia de créditos
2022ko zerga fiskalak. Hasierako onarpena.	3	Ordenanzas fiscales del 2022. Aprobación inicial.
Konfiantzazko edo behin-behineko langileen kopurua, lanpostuaren ezaugarriak eta ordainsarien xedapena.	4	Determinación del número, características y retribuciones del personal de confianza o eventual.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Beterri-buruntza Mankomunitatea.	5	Mancomunidad Beterri-buruntza.
Ikastola handitzeko Plan Berezia. Behin betiko onarpena.	6	Plan Especial para la ampliación de la ikastola. Aprobación definitiva.
Astigarragako Zarkumendegi 21. HIEren 4. Plan Partzialaren aldaketa puntuala. Behin-betiko onarpena.	7	4ª Modificación puntual del Plan Parcial AIU 21 “Zarkumendegi” de Astigarraga. Aprobación definitiva.
Kontratazio-espedientea: kale garbiketa zerbitzua.	8	Expediente de contratación: servicio de de limpieza viaria.
Adierazpen instituzionalaren proposamena. DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!	9	Propuesta de declaración institucional: DESCONEXIÓN DE LAS ELÉCTRICAS. Ante su fraude, ¡soberanía energética!
Informazio, galdera eta eskariak.	10	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

Bilerari hasiera eman aurretik, alkateak azaldu du Alkateak azaldu du lone eta Urkiri zinegotziek, amatasun-bajan daudenez, beren botoa alderdiko bozeramaileei eskuordetu dietela, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 25.6 artikulua xedatutakoari jarraiki.

Antes de dar comienzo a la sesión, el alcalde explica que las concejalas lone y Urkiri, al estar de baja maternal, han delegado su voto a sus respectivos portavoces, en virtud de lo dispuesto en el artículo 25.6 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi.

1.- 2021eko uztailaren 23ko akta onartzea.

1.- Aprobación del acta de 23 de julio de 2021.

Jon Arregi zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta **onartu** egin da.

El concejal Jon Arregi se abstiene por no haber estado en la sesión anterior, el resto, en cambio, vota a favor. Por lo tanto, **se aprueba el acta.**

2.-2021eko udal aurrekontuaren aldaketa: kreditu transferentzia

2.- Modificación del presupuesto municipal del 2021: transferencia de créditos

Alkateak Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de Hacienda y Patrimonio:

Lehenengoa.- Onartzea Udala honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos del presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de transferencias de crédito, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	225.700,00	56.500,00	169.200,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	167.450,00	124.000,00	43.450,00
GUZTIRA		393.150,00	180.500,00	212.650,00

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	33.856,99	5.500,00	39.356,99
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	5.000,00	20.000,00	25.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	0,00	2.000,00	2.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	24.000,00	153.000,00	177.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irimo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

Segundo.- Dado que el presente acto es firme y ejecutivo sin más trámite, procede la inmediata contabilización por el Servicio de Intervención de la modificación de crédito aprobada "

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

3.- 2022ko zerga fiskalak. Hasierako onarpena.

Alkateak Ogasun eta Ondareko Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

3.-Ordenanzas fiscales del 2022. Aprobación inicial.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Lehena.- Ordenantza fiskalei buruzko Testu Bateginaren hasierako onespena, 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko.

Primero.- Aprobación inicial del texto refundido de ordenanzas fiscales para su entrada en vigor el 1 de enero de 2022.

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespenaren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunez.

Segundo.- Conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, el acuerdo de aprobación inicial se someterá a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

Tercero.- Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespren-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Alkateak azaldu du irizpide orokor bezala 1,5eko igoera aplikatu dela, azken urteko ekainetik ekaineko KPIa 2,9a izan denean. Halaber, adierazi du 2022an berriro ere tasak kobratuko direla ostalaritza terrazak jartzeagatik, azken bi urteetan kobratu ez direnak.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du bere taldeak kontra bozkatuko duela, beren irizpidea delako zergak ez igotzea, are gehiago kontuan hartzen bada herritarren egoera, eta 2020an %2a igo zirela.

Alkateak erantzun dio azken igoera aplikatu zenean, bizimodua %15a igo zela, eta zela guzti hori igo; gainera herri asko handitu izanak dakarrela zerbitzuen kostua igo izana, eta ondorioz, igoera aplikatu beharra dagoela, baina hobari sistema indartuko dela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da, aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu) eta kontrako 4 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV).

4.- Konfiantzazko edo behin-behineko langileen kopurua, lanpostuaren ezaugarriak eta ordainsarien xedapena.

Alkateak azaldu du gaia Bozeramaile Batzordean aztertu dela, eta erabaki dela proposamen hau auzkeztea onartua izan dadin:

Lehena. Behin-behineko langileen kopuru, ezaugarri eta ordainsari hauek zehaztea, Esti Neira zinegotzia alkatearen idazkari eta komunikazioaren arduradun lanpostura itzultzen den bitartean:

Cuarto.- Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.

El alcalde explica que como criterio general se ha aplicado un incremento de 1,5 cuando el IPC de junio a junio del último año ha sido de 2,9. Asimismo, indica que en 2022 se volverán a cobrar a los establecimientos hosteleros tasas por la instalación de terrazas, que no se han cobrado en los dos últimos años.

La Concejala, Nerea, toma la palabra para manifestar que su grupo votará en contra porque su criterio es no subir impuestos, más aún si se tiene en cuenta la situación de la ciudadanía, y que en 2020 se incrementaron en un 2%.

El alcalde le responde que cuando se aplicó la última subida, el nivel de vida había aumentado un 15%, y que no se aplicó esa subida, señala además que el crecimiento del pueblo conlleva un aumento del coste de los servicios, por lo que es necesario realizar la subida, pero que se reforzará el sistema de bonificaciones.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen, con 7 votos a favor (Astigarragako EHBildu) y 4 en contra (EAJ-PNV de Astigarraga).

4.- Determinación del número, características y retribuciones del personal de confianza o eventual.

El alcalde explica que el tema se ha estudiado en la Junta de Portavoces, y que se ha decidido presentar – para su aprobación – la siguiente propuesta:

Primero. Determinar el siguiente número, características y retribuciones del personal eventual, mientras que se reincorpore la concejala Esti Neira a su puesto de secretaria del alcalde y responsable de comunicación:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

BEHIN-BEHINEKO LANGILERIA / PERSONAL EVENTUAL

Kopurua/ número	Ezaugarriak / características		Urteko ordainsaria/ Retribución anual
	Izena / denominación	Dedikazioa / dedicación	
1	Alkatearen idazkaria eta komunikazio arduraduna/ Secretaria del alcalde y responsable de comunicación.	%50	16.597,42 €

Bigarrena.- Erabaki hau Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Segundo. Publicar el presente acuerdo tanto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Hirugarrena.- Behin-behineko langileei dagokienez, Udalaren lanpostuen zerrenda eta plantillaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea: modu honetan:

Tercero.- Aprobar inicialmente la modificación de la plantilla y la relación de puesto de trabajo del Ayuntamiento, en lo que al personal eventual se refiere en los siguientes términos:

Plantila organikoa / Plantilla orgánica:

B).- BEHIN BEHINEKO LANGILERIA / PERSONAL EVENTUAL:

Izena / denominación	Plaza kopurua / nº de plazas	Taldea / grupo	Egoera / situación
Alkatearen idazkaria eta komunikazio arduraduna/ Secretaria del alcalde y responsable de comunicacion	1	C1	Alkateak izendatzeke Pendiente de nombramiento

Langileen zerrenda / Relación de puestos de trabajo:

B).- BEHIN BEHINEKO LANGILERIA / PERSONAL EVENTUAL

Lanpostua / puesto	Saila/ departamento	Lanaldia / jornada	Kopurua / número	Urteko ordainsaria/ Retribución anual
Alkatearen idazkaria eta komunikazio arduraduna / Alkatetza / Secretaria del alcalde y responsable de alcaldía comunicación.		%50	1	16.597,42 €

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **ahoz onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

5.- Beterri-buruntza Mankomunitatea.

Alkateak azaldu du mankomunitatea eratuko duten 6 herrietako zinegotzien batzarrak estatutuak irailaren 13an egindako batzarrean

5.- Mancomunidad Beterri-buruntza.

El alcalde informa que los estatutos fueron aprobados, por la Junta de Concejales de los 6 municipios que formarán la Mancomunidad, en la



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

onartu zutela. Jarraian, Bozeramaile Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

“Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) 2017ko urtarrilaren 27an elkarren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, horren xedeetako bat izanik tokiko garapen, sustapen ekonomiko eta enplegu alorrean eskualde mailako egitura bat sortzeko azterketa egitea. Hitzarmen horri esker Beterri-Buruntzako udalak lanean aritu dira eskualde mailako garapen agentzia baten babesean elkartzeko, jarraian adierazten diren udal eskuduntzako zerbitzu eta/edo obren exekuziorako: “tokiko garapen ekonomiko eta soziala, enplegu politika edo planak, tokiko turismoaren promozioa eta kudeaketa”.

Ikusirik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 4. eta hurrengo artikuluen edukia, eta jakinik arestian aipaturiko herrien arteko elkarlana, azaldutako xedeei dagokienez, onuragarria dela udal honentzat eta bertako bizilagunentzat, baliabide publikoak modu egokiagoan kudeatzeko aukera eskainiko duelako.

2017an sinatutako udalen arteko lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz sortutako Batzorde Kudeatzaileak 2019 otsailaren 13an adostu zuen aipaturiko udalei trasladatzea proposamen bat, Plenoan erabaki zezaten konpromisoa hartzea Beterri-Buruntza eskualdeko tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko. Hori horrela, aipatu sei udalen Udalbatzek, arestian aipaturiko xedeetarako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko konpromisoa hartu zuten.

Ondoren, espedientea izapidetzeko eratu zen Batzorde Kudeatzaileak estatutuen aurreproiektua onartu zuen 2020ko martxoaren 16ko bilkuran.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 6.1. artikuluari jarraiki, udal guztietako zinegotzi guztiek osatu beharreko Batzarrak estatutuen proiektua onartu zuten.

2021eko maiatzaren 13ko dataz, Gipuzkoako

sesión celebrada el día 13 de septiembre. A continuación presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Portavoces:

“Los Ayuntamientos que conforman la Comarca de Beterri-Buruntza (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil) firmaron el 27 de enero de 2017 un convenio de colaboración entre ellos para la realización de un estudio para la creación de una estructura comarcal en materia de desarrollo local, promoción económica y empleo. Gracias a este convenio los ayuntamientos de Beterri-Buruntza han trabajado para agruparse al amparo de una agencia de desarrollo comarcal para la ejecución de los servicios y/u obras de competencia municipal que se indican a continuación: “Desarrollo económico y social local, políticas o planes de empleo, promoción y gestión del turismo local”.

Visto el contenido de los artículos 4 y siguientes de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades supramunicipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y que la colaboración entre los municipios anteriormente citados, en relación con los fines descritos, es beneficiosa para este Ayuntamiento y sus vecinos, ya que permitirá una gestión más adecuada de los recursos públicos.

La Comisión Gestora resultante del Convenio de colaboración intermunicipal firmado en 2017 acordó el 13 de febrero de 2019 trasladar a los citados Ayuntamientos una propuesta para que se comprometieran en Pleno a participar en la creación de la mancomunidad de desarrollo económico y social local de la comarca de Beterri-Buruntza. En este sentido, las Corporaciones de los seis Ayuntamientos citados se comprometieron a participar en la creación de la Mancomunidad a los fines antes mencionados.

Posteriormente, la Comisión Gestora constituida para la tramitación del expediente aprobó el Anteproyecto de Estatutos en su sesión de 16 de marzo de 2020.

De conformidad con el artículo 6.1 de la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril, reguladora de las entidades supramunicipales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el proyecto de estatutos fue aprobado por la Asamblea de todos los Concejales de todos los Ayuntamientos.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Foru Aldundiak aipatu Foru Arauak eskatutako txostena egin zuen, bertan estatutueto hainbat artikulua aldatzea proposatzen zuelarik.

Behin txosten horretan adierazitakoak estatutuen testuan jasota, eta 6/2007 Foru arauaren 6.1.1.e) artikuluari jarraiki, aldatetok onartzeko Zinegotzien Batzarra deitu zen, eta 2021eko irailaren 13an estatutu proiektua behin betikoz onartu, batzartutakoen aho batez.

2021eko irailaren 16ko datarekin Udalari jakinarazi zaio hartuko erabakia eta estatutuen behin betiko testua helarazi.

Hori guztia ikusirik, kontuan hartuta aipatu Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako txostena eta prozedurari dagokion udal idazkariak emandakoa, bozeramaile batzordeak 2021eko irailaren 21ean egindako bilkuran 2 aldeko botoekin (EHBldu taldekoak) eta abstentzio 1ekin (PNVko kidea), honako irizpen-proposamen hau egiten dio Udalbatza plenoari

LEHENENGOA.- Beterrri-Buruntza Mankomunitatearen estatutuak behi-betikoz onartzea.

BIGARRENA: Beterrri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Nagusirako udal ordezkari gisa honako izendapen hauek egitea:

Titularra Xabier Urdangarin Lasa
Ordezkoa Aintzane Barandiaran Ezponda
Titularra Roxali Fernandez Rodriguez
Ordezkoa Güemes Oyarbide

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri ordezkari gisa izendatutako zinegotziei, Andoain, Hernani, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako udalei eta Batzorde Kudeatzailari ematea, azken honetako lehendakariak, behin udalek akordio guztiak hartuta, erabakia eta onartutako estatutuen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan.

Nerea zinegotziak irizpena puntuka bozkatzeko aukeraren inguruan galdetu du, eta alkateak erantzun dio bere osotasunean bozkatu behar

Con fecha 13 de mayo de 2021, la Diputación Foral de Gipuzkoa emitió el informe solicitado por la citada Norma Foral, en el que proponía la modificación de varios artículos de los estatutos.

Una vez recogidos en el texto estatutario los términos de dicho informe, y de conformidad con el artículo 6.1.1.e) de la Norma Foral 6/2007, para la aprobación de estas modificaciones se convocó la Junta de Concejales y el 13 de septiembre de 2021 se aprobó definitivamente el proyecto de Estatuto por unanimidad de los asistentes.

Con fecha 16 de septiembre de 2021 se ha notificado al Ayuntamiento la decisión adoptada y remitido el texto definitivo de los estados.

A la vista de todo ello, teniendo en cuenta el informe emitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa y el emitido por la secretaria municipal correspondiente al procedimiento, la Junta de Portavoces, en sesión celebrada el día 21 de septiembre de 2021, con 2 votos a favor (los del grupo EHBldu) y 1 abstención (el del PNV), somete la siguiente propuesta de dictamen al Pleno de la Corporación

PRIMERO:- Aprobar definitivamente los Estatutos de la Mancomunidad de Beterrri-Buruntza.

SEGUNDO.- Realizar los siguientes nombramientos como representante municipal en la Junta General de la Mancomunidad de Beterrri-Buruntza:

Titular Xabier Urdangarin Lasa
Sustituto Aintzane Barandiaran Ezponda
Titular Roxali Fernandez Rodriguez
Sustituto Güemes Oyarbide

TERCERO.- Dar traslado del presente acuerdo a los Concejales designados como representantes, a los Ayuntamientos de Andoain, Hernani, Urnieta, Usurbil y Lasarte-Oria y a la Comisión Gestora, a fin de que por el Presidente de esta última, una vez adoptados todos los acuerdos por los Ayuntamientos, se proceda a la publicación del mismo y del texto de los Estatutos aprobados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La Concejala Nerea pregunta sobre la posibilidad de votar el dictamen por puntos, a lo que el



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

dela, Bozerramaile batzordean azaldu zenez sei udalerrirentzako prestatutako akordio proposamen bateratua delako.

Nerea zinegotziak adierazi du horrela bada, beraiek alde bozkatuko dutela, mankomunitate sortzeko ekimenarekin aurrera jarraitzeko ezinbestekotzat jotzen dutelako, baina hori aktan jasotzea nahi dutela, bai eta irizpenaren 1. eta 3. puntuekin ados daudela, baina ez 2. arekin (ordezkarien izandapenekin).

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

6.-Ikastola handitzeko Plan Berezia. Behin betiko onarpena.

Alkateak Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna Batzorde Informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

Lehena.- Behin betiko onartzea Ikastola handitzeko Plan Berezia.

Bigarrena.- Aurreko erabakian aipatzen den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan argitaratu baino lehen.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneren erabakiaren eta hirigintza-arauen eduki osoa, eta adieraztea dagokion hirigintza-plana egin ondoren gordailutu dela erregistro horretan eta Planaren ingurumen-txosten estrategikoa Euskal Herriko Aldizkarian argitaratu zela.

Laugarrena.- Behin betiko onartzeko erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

Alcalde responde que hay que votar en su totalidad, ya que tal y como se explicó en la Junta de Portavoces, yha que es una propuesta de acuerdo conjunta para los seis municipios.

La Concejala Nerea señala que si es así, votarán a favor porque consideran que es imprescindible para seguir adelante con la iniciativa de creación de mancomunidad, pero quieren que conste en acta, así como que están de acuerdo con los puntos 1 y 3 del dictamen, pero no con el 2 (con las designaciones de los representantes).

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

6.- Plan Especial para la ampliación de la ikastola. Aprobación definitiva.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Movilidad:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Especial para la ampliación de la Ikastola.

Segundo.- Remitir el Plan Especial a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.

Tercero.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del plan urbanístico en el citado registro una vez efectuado y con referencia a la publicación del informe ambiental estratégico del Plan en el Boletín Oficial de País Vasco.

Cuarto.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico de Gipuzkoa.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

7.- Astigarragako Zarkumendegi 21. HIEren 4. Plan Partzialaren aldaketa puntuala. Behin-betiko onarpena.

Alkateak Hirigintza, Etxebizitza, Ingurugiroa eta Mugikotasuna batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Behin betiko onartzea Zar kumendegi 21 HEAren Plan Partzialaren 4. aldaketa.

Bigarrena.- Aurreko erabakian aipatzen den Plan Partziala Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan argitaratu baino lehen.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneraren erabakiaren eta hirigintza-arauen eduki osoa, eta adieraztea dagokion hirigintza-plana egin ondoren gordailutu dela erregistro horretan eta Planaren ingurumen-txosten estrategikoa Euskal Herriko Aldizkarian argitaratu zela. (2021eko irailaren 2ko EHAA).

Laugarrena.- Behin betiko onartzeko erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

8- Kontratazio-espeditzea: kale garbiketa zerbitzua.

Alkateak Kontratazio Mahaiko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

LEHENA.- Astigarragako udalerriko kale-garbiketa zerbitzua kontratatzeke 1. lotea "garbiketa orokorra" - GUREAK GARBITASUNA SLU enpresari ESLEITZEA – 354.300 eurotan (BEZa barne hartu gabe), baldintzaturik bigarren akordioan jasotakoa betetzera.

BIGARRENA.- Enpresa esleipendunak,

7.- 4ª Modificación puntual del Plan Parcial AIU 21 "Zarkumendegi" de Astigarraga. Aprobación definitiva.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa Urbanismo, Vivienda, Medio Ambiente y Movilidad:

Primero.- Aprobar definitivamente la 4ª Modificación del Plan Parcial del AIU 21 Zarkumendegi.

Segundo.- Remitir el Plan Parcial a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.

Tercero.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del plan urbanístico en el citado registro una vez efectuado y con referencia a la publicación del informe ambiental estratégico Plan en el Boletín Oficial de País Vasco (BOPV de 2 de septiembre de 2021).

Cuarto.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico de Gipuzkoa.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

8.- Expediente de contratación: servicio de de limpieza viaria.

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Mesa de Contratación

PRIMERA.- ADJUDICAR el LOTE 1 "limpiezas ordinarias" del contrato de del servicio de limpieza viaria del término municipal de Astigarraga a la empresa GUREAK GARBITASUNA SLU (condicionado al cumplimiento de lo recogido en el segundo acuerdo), por 354.300 euros (IVA sin incluir),

SEGUNDO.- La empresa adjudicataria deberá –



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zuzeneko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu moduan.

HIRUGARRENA.- Astigarragako udalerriko kale-garbitzua zerbitzua kontratatzeko 2. lotea “baldeaketa eragiketak” - CONMOVIL VITORIA SA enpresari ESLEITZEA –8000 eurotan (BEZa barne hartu gabe) baldintzaturik laugarren akordioan jasotakoa betetzera.

LAUGARRENA.- Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean, behin betiko bermea jarri beharko du Udaleko Diruzaintza Sailean – 400 euro 2. loterako –; halaber, agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zuzeneko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten den moduan.

BOSGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

9.- Adierazpen instituzionalaren proposamena. DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK Haien iruzurraren aurrean, burujabetza energetikoa!

Alkateak azaldu du bozeramaile batzordean gaia aztertu dela, eta alderdi guztien ongi ikusia ez duenez, mozio bezala aurkeztu dela. Jarraian testua aurkeztu du onartua izan dadin:

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrek pobretzen eta Espainiako Gobernu hori baimentzen. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan. Gobernuak, politikariek, elektrikoek eta guztiek partekatzen dituzten interes ekonomikoek sortutako eta baimendutako iruzurra.

en el plazo de 10 días contados a partir del siguiente de la notificación de la adjudicación del contrato – presentar la documentación y verificar los requisitos previos en la forma que se estipula en la cláusula 25 del pliego de condiciones administrativas.

TERCERO.- ADJUDICAR el LOTE 2 “operaciones de baldeo” del contrato de del servicio de limpieza viaria del término municipal de Astigarraga a la empresa CONMOVIL VITORIA SA (condicionado al cumplimiento de lo recogido en el cuarto acuerdo), por 8000 euros (IVA sin incluir),

CUARTO.- La empresa adjudicataria deberá – en el plazo de 10 días contados a partir del siguiente de la notificación de la adjudicación del contrato – depositar en el Departamento de Tesorería del Ayuntamiento la garantía definitiva por importe de y de 400 euros para el lote 2; así como presentar la documentación y verificar los requisitos previos en la forma que se estipula en la cláusula 25 del pliego de condiciones administrativas.

QUINTO.- Notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el procedimiento, y publicarlo en el perfil del contratante del Ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba por unanimidad.**

9.- Propuesta de declaración institucional: DESCONEXIÓN DE LAS ELÉCTRICAS. Ante su fraude, ¡soberanía energética!

El alcalde comenta que en la Junta de Portavoces se ha analizado el texto, y como no tiene el apoyo de todos los grupos se presenta como moción. A continuación presenta el texto para su aprobación:

El precio de la electricidad en máximos históricos; las facturas subiendo; las empresas eléctricas enriqueciéndose, los ciudadanos empobreciéndose y el Gobierno español permitiéndolo. Ese es precisamente el resumen del gran fraude que se está cometiendo contra la ciudadanía. Este fraude ha tenido graves consecuencias en familias, pequeñas y medianas empresas o pequeños comercios. Un fraude generado y permitido por los intereses



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

económicos compartidos por gobiernos, políticos y compañías eléctricas.

Haiek izan ziren, Espainiako Estatuak gobernatu duten alderdiak, bai PSOE eta baita PP ere, enpresa publikoak pribatizatu, saldu eta desegin zituztenak, sistema desarautuz eta "merkatuaren" esku utziz. Administrazio Kontseiluek kontrolatzen eta manipulatzeko duten merkatuaz ari gara, bi alderdiotako presidente eta ministro ohiez osaturikoa. Helburu bakarrarekin: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea.

Fueron ellos, los partidos que han gobernado el Estado español, tanto el PSOE como el PP, los que privatizaron, vendieron y desmantelaron empresas públicas, desregulando el sistema y dejándolo en manos del "mercado". Hablamos de un mercado controlado y manipulado por los Consejos de Administración, formado por presidentes y exministros de ambos partidos. Con un único objetivo: enriquecerse a costa de un bien esencial como la energía.

Horrela eraiki zuten haien neurriaren eginiko merkatu elektrikoa, energia merkeena garestienaren prezioan ordaintzera iristeraino. Argindarrarekin espekulatu eta manipulatzeko dute merkatua, ura edo haizea bezalako ondasun publikoen bitartez. Oligopolioaren enpresa handiek, Endesa, Iberdrola edota Naturgy, milioi askoko irabaziaz metatzen dituzte urtero, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez. Zerutik eroritako etekinak dituen sare oso bat osatu dute urteotan, argindar onpainietako akziodunen poltsikoetan amaitzen dena. Negozio biribila.

Así construyeron un mercado eléctrico a su medida, hasta el punto de pagar la energía más barata al precio de la más cara. Especulan y manipulan con la electricidad a través de bienes públicos como el mercado, el agua o el viento. Grandes empresas del oligopolio, como Endesa, Iberdrola o Naturgy, acumulan beneficios millonarios cada año, mientras roban dinero a los consumidores y roban tierras a los productores, provocando consecuencias sociales y climáticas muy graves. En estos años han formado toda una red con beneficios caídos del cielo que acaba en los bolsillos de los accionistas de las compañías eléctricas. Un negocio redondo.

Egoera horren aurrean, eskandalu horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez ditu hartu Espainiako Gobernuak, iritzi publikoaren eta indar politiko subiranisten eta aurrerakoen presioak derrigortu duen arte. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresek xantaia egin diote eta mehatxura jo dute; ez bakarrik Espainiako Gobernuari, baita argindarraren faktura merkatuko zaiela espero duten milaka herritarrei ere. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pultsu baten aurrean gaude, finean.

Ante esta situación, el Gobierno español no ha adoptado más que medidas coyunturales y parches para hacer frente a este escándalo hasta que ha sido coaccionado por la presión de la opinión pública y de las fuerzas políticas soberanistas y progresistas. Y cuando ha tomado la única medida que afectará a los beneficios de las grandes empresas, han las empresas eléctricas han recurrido al chantaje y la amenaza, no solo al Gobierno español, sino también a los miles de ciudadanos que esperan que se les abarate la factura de la luz. Estamos, en último término, ante un pulso entre élites y mayorías sociales y populares.

Bada, katalanek, euskal herritarrek eta galiziarrek, fronte komun bat osatu dugu oligopolio energetikoaren mehatxuen aurka, Espainiako Gobernuak iruzur elektrikoari egiturazko neurriekin aurre egiteko erakutsi duen borondate eta ekintza falta salatzeaz gain.

Ante esta situación, catalanes, vascos y gallegos, hemos formado un frente común contra las amenazas del oligopolio energético, además de denunciar la falta de voluntad y de acción del Gobierno de España para combatir el fraude eléctrico con medidas estructurales.

Izan ere, gure herrialdeek, Herrialde Katalanek, Galizak eta Euskal Herriak, ez dute iruzur elektrikoari eta horren erantzuleei aurre egiteko

Porque nuestros países, Cataluña, Galicia y Euskal Herria, no tenemos la soberanía que necesitamos para combatir el fraude eléctrico y



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

beharrezkoa dugun subiranotasuna. Gure parlamentuak eta gobernuak Espainiako Estatuari lotuta daude, eta horrek guzti hori gertatzea ahalbidetzen du. Gaur-gaurkoz, merkatuan esku hartu ahal izateko, oligopolio elektrikoari aurre egiteko eta gobernuak ausardia faltagatik hartu nahi ez dituen neurriak martxan jartzeko tresna propioak ukatzen zaizkigu.

Espainiako Estatuarekiko dugun menpekotasun energetiko eta politikoa oztopo argi bat da gure herritarrek enpresek egiten dituzten gehiegikerietatik babesteko. Prezioei muga jartzea, arlo publikotik esku hartzea eta kontrolatzea eragozten digu horrek. Tarifa propioak, arau propioak, merkatu propioak eta, beraz, irtenbide propioak sortzea eragozten digu. Azken finean, publikoa zena berreskuratzea galarazten digu.

Gure herriek subiranotasun energetikoa ez izateak oso garesti ateratzen zaigu galiziarroi, katalanoi eta euskal herritarroi. Bada garaia gure nazioen eraikuntzan ere burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra errespetatzeko, oinarrizko ondasun eta eskubide gisa.

Hori dela eta, Astigarragako Udalak honako hau adierazten du:

1. Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen du.
2. Euskal Herriak subiranotasun energetikoa behar du, espainiar estatuan ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak behar ditugu, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeke eta argindarra oinarrizko ondasun eta eskubide gisa errespetatzeko.
3. Eusko Jaurlaritza interpelatu dugu, lankidetzak publiko-komunitarioa, deszentralizatua eta kontrol publikoa bermatuko dituen neurri zehatzak har ditzan presazko izaerarekin.
4. Astigarragako Udalak urriaren 8an, 22:00etatik 22:30etara deitutako itzalaldi masibo eta kazolajotzeko deialdiarekin bat egiten du.

enfrentarnos asus responsables. Nuestros parlamentos y gobiernos están vinculados al Estado español, y eso permite que todo esto ocurra. Hoy por hoy se nos niegan instrumentos propios para poder intervenir en el mercado, para combatir el oligopolio eléctrico y para poner en marcha medidas que el gobierno no quiere tomar por falta de valentía.

Nuestra dependencia energética y política del Estado español es un claro obstáculo para proteger a nuestra ciudadanía de los abusos que cometen las empresas. Esto nos impide poner límite a los precios e intervenir y controlar desde lo público. Nos impide crear tarifas propias, normas propias, mercados propios y, por tanto, soluciones propias. Al fin y al cabo, nos impide recuperar lo que era público.

Que nuestros pueblos no tengan soberanía energética nos sale muy caro a los gallegos, a los catalanes y a los vascos. Es hora de que también avancemos hacia la soberanía energética en la construcción de nuestras naciones, que tengamos sistemas propios que rompan el oligopolio establecido, para construir sistemas justos desde lo público y respetar la electricidad como un bien y un derecho básico.

Por ello, el Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta lo siguiente:

1. Denunciamos el grave fraude que están cometiendo las compañías eléctricas con el precio de la electricidad.
2. Euskal Herria necesita la soberanía energética, necesitamos sistemas propios que rompan el oligopolio establecido en el Estado español, para construir sistemas justos desde lo público y respetar la electricidad como un bien y un derecho básico.
3. Interpelamos al Gobierno Vasco para que adopte con carácter urgente medidas concretas que garanticen la colaboración público-comunitaria, descentralizada y el control público.
4. El Ayuntamiento de Astigarraga se adhiere a la convocatoria de apagón masivo y cacerolada convocada para el día 8 de octubre de 22:00 a 22:30 horas.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du jakin arren arazo larria dela, herritarrengan eragin txarra duena, eta neurriak hartu behar direla, ez daudela ados zioarekin, ez baitira gertakariak bere horretan jasotzen, ez eta mapa osoa, Mundu osoko arazoa baita, eta ez bakarrik Estatukoa. Bukatzeko adierazi du eskatzen den soberatasunaren aldekoak direla, baina ezin dutenez testua bere horretan babestu, kontra bozkatuko dutela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa **onartu** da aldeko 7 botoekin (Astigarragako EHBildu) eta kontrako 4 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV).

10.- Informazio, galdera eta eskariak.

Bilerara Mugi Astigarraga autobus zerbitzu duinaren aldeko plataformako kideak bertaratu direnez, alkateak hitza eman die, eta ordezkariak adierazi du autobus zerbitzuak ez dituela herritarren beharrak asetzen, herriak dituen bi lineak oso zerbitzu ezberdinak dituztela, bai eta erabiltzaile motak; eta ondorioz, ezin direla alderatu; eta BU12 zerbitzuak izan dituen murrizketak onartezinak direla. Gaineratu du 1870 sinadura jaso dituztela eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa sailean aurkeztu dituztela, eta bilera eskatu dutela.

Jarraian, ordezkariak, plataformaren eskaeraren berri eman du: a) murrizketak ez dira onargarriak ez geltokietan, ez ordutegian; 2) Buruntzaldeko beste udalerriek bezala, ospitalera eta unibertsitatera doan autobusa jartzea. Eta bukatzeko, herriko alderdi politikoei eskatu die bat egitea beren eskaerarekin, aurkeztuko duten mozioa babestea, bai eta alegin osoa egite dezaten zerbitzu duin bat lortzeko.

Alkateak plataformaren lana eskertu ondoren, adierazi du sinadura bilketa (herrien egin den handiena) argi usten duela herritarren ezinegona, eta udalak bat egiten duela plataformaren eta herritarren eskaerarekin. Jarraian ekinetik hona udalak gaiaren inguruan emandako urratsen errepaso egin du (bidalitako idatziak, eskatutako bilerak...), eta bere konpromisioa agertu du

La Concejala Nerea toma la palabra y señala que a pesar de saber que se trata de un problema grave, que afecta negativamente a la ciudadanía, y que hay que tomar medidas, no están de acuerdo con el texto, dado que no se recojan los hechos ni el mapa completo, ya que es un problema de todo el mundo y no sólo del Estado. Concluye diciendo que son partidarios de la soberanía que se pide, pero que al no poder apoyar el texto en sus propios términos votarán en contra.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la moción con 7 votos a favor (Astigarragako EHBildu) y 4 en contra (EAJ-PNV de Astigarraga).

10.- Información, ruegos y preguntas.

Dado que a la sesión han acudido integrantes de la Plataforma Mugi Astigarraga a favor del servicio de autobús digno, el alcalde les ha cedido la palabra; y su representante ha manifestado que el servicio de autobús no satisface las necesidades de la ciudadanía, que las dos líneas que tiene la localidad tienen servicios, así como tipos de usuarios/as, muy diferentes, por lo que no se pueden comparar; y que las restricciones que ha sufrido el servicio de BU12 son inaceptables. Añade que se han recogido 1870 firmas y las han presentado ante el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, solicitando reunión.

A continuación, el representante informa de la petición de la plataforma: a) las restricciones no son aceptables ni en las paradas ni en el horario; 2) igual que el resto de municipios de Buruntzaldea, solicitan un autobús para ir al hospital y a la universidad. Y finalmente pide a los partidos políticos municipales que se sumen a su solicitud, que apoyen la moción que van a presentar, y que hagan todo el grano para conseguir un servicio digno.

El alcalde, tras agradecer el trabajo de la plataforma, señala que la recogida de firmas (la más grande realizada en el pueblo) es una clara manifestación del malestar ciudadano y que el Ayuntamiento se suma a la demanda de la plataforma y de la ciudadanía. A continuación realiza un repaso de los pasos dados por el Ayuntamiento desde junio hasta la actualidad



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

lanean jarraitzeko herritarrekin batera zerbitzu autobus egoki bat lortzeko, eta adierazi du herri mugimenduak mozioa aurkeztuz gero, bere taldeak hori babestuko duela. Bukatzeko adierazi du urriaren 20an agerraldia dutela batzar nagusietan.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du Astigarragan garraio publikoa hobetzeko neurrien alde egitego dutela lan, aurreko legealdian ere horretan saiatu zirela, baina ez zutela lortu nahi zuten guztia. Bukatzeko adierazi du plataformaren aldarrikapenarekin bat egiten dutela, eta mozioa aurkeztuz gero beraiek ere babestuko dutela.

Plataformako kideek urriaren 20ko agerraldian parte hartzearen aukeraren inguruan galdetu dute, eta alkateak adierazi dio horren inguruko galdera egingo duela.

Bestetik, hainbat herritarrek hitza hartu eta autobus zerbitzuari buruz jarritako kexen erantzunaren inguruan kexatu dira.

(escritos enviados, reuniones solicitadas ...) y muestra su compromiso de seguir trabajando con la ciudadanía para conseguir un servicio de autobús adecuado, señalando que si la plataforma presenta una moción, su grupo lo apoyará. Concluye señalando que el 20 de octubre tienen comparecencia en las Juntas Generales.

La Concejala Nerea toma la palabra para manifestar que van a trabajar por medidas de mejora del transporte público en Astigarraga, que ya se intentó en la anterior legislatura, pero que no consiguieron todo lo que querían. Concluye diciendo que se adhieren a la reivindicación de la plataforma y que si se presenta la moción ellos también la apoyarán.

A pregunta de los miembros de la Plataforma sobre la posibilidad de participar en la comparecencia del 20 de octubre, el alcalde le indica que planteará dicha posibilidad.

Por otro lado, varias de las personas presentes han tomado la palabra y se han quejado de la respuesta recibida a las quejas que han presentado sobre el servicio de autobuses.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2021eko irailaren 28an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria